

1.- Pent-4-en-1-ola konposatua emanda:

- Idatzi dagokion formula
- Idatzi Br_2 -arekiko adizio-erreakzioa, eta izendatu erreakzio horren ondorioz eratzen den konposatua.
- Idatzi H_2SO_4 kontzentratuarekiko deshidratazio-erreakzioa, eta izendatu erreakzio horren ondorioz eratzen den konposatua.

2.- Erantzun:

- Adierazi, arrazoituz, zer konposatu erabil daitezkeen azido bat lortzeko oxidazio-prozesuaren bidez.
 - Pentan-1-ola
 - Butan-2-ola
 - 1,1-dikloro-1-propanola
 - Propanala
 - Propanona
- Adierazi pentan-1-olaren posizio isomero bat.
- Arrazoitu ea propanonak posizio-isomerorik izan ote dezakeen.

3.- Osatu erreakzio hauek, izendatu haietako bakoitzean lortutako produktuak eta adierazi zer erreakzio mota geratzen den:

- $\text{CH}_3\text{-CH}_2\text{-CH}_2\text{OH} + \text{H}^+/\text{beroa} \rightarrow$
- $\text{CH}_3\text{-CH}_2\text{OH} + \text{HCOOH} \rightarrow$
- $\text{CH}_2=\text{CH-CH}_2\text{-CH}_3 + \text{HBr} \rightarrow$

4.- Izendatu eta formulatu konposatu hauek:

- $\text{CH}_3\text{OCH}_2\text{CH}_3$ -aren funtzio-isomero bat.
- $\text{C}_6\text{H}_4\text{Cl}_2$ konposatu bentzenikoaren hiru posizio-isomero.
- Formulatu konposatu hauek: pent-2-eno-1,5-diola; 3.5-dimetilhex-4-enala; Propil metanoatoa; Prop-1-enamina; Azido pent-3-enoikoa.

5.- Osatu erreakzio organiko hauek, eta esan zer motako erreakzioa den bakoitza.

Izendatu produktuak, eta formulatu erreaktiboak eta produktuak.

- Azido propanoikoa + etanola \rightarrow
- 2-metilbut-2-enoa + hidrogeno bromuroa \rightarrow
- Propinoa + hidrogenoa (soberan) + katalizatzailea \rightarrow


6.-Konposatu organiko hauek emanda: azido propanoikoa, butan-2-ola, butanona, metil propanoatoa:

- Idatzi konposatu bakoitzaren formula erdi garatua.
- Idatzi eta izendatu butanoaren bi funtzio-isomeroen formulak.
- Metil propanoatoa azido karboxiliko eta alkohol egokietatik hasita sintetizatzeke ekuazio kimikoa idatzi.
- Idatzi, beharrezko erreaktiboak gehituz, butanona lortzeko erreakzioa butan-2-oletik abiatuz.

7.- Ondorengo erreakzio kimikoak osatu. Konposatu organiko guztien formula erdi garatuak eta erreakzioen produktuak izendatu.

- 2-bromobutanoaren deshdrohalogenazioa base batekin.
- Propan-1-olaren oxidazioa oxidatzaile apal batekin.
- Azido pentanoikoaren esterifikazioa propan-2-olarekin.

8.- Osatu erreakzio organiko hauek, eta esan zer motatakoak diren. Erreakzio bakoitzean parte hartzen duten erreaktibo eta produktu guztiak formulatu eta izendatu.



9.- Adierazi zer isomeria mota dagoen konposatu bikote hauetako bakoitzean.

- Pentanala eta pentan-2-ona
- Pentan-2-ona eta pentan-3-ona
- Azido butanoikoa eta azido metilpropanoikoa.

10.- esan ea esaldi hauek zuzenak ala okerrak diren, eta arrazoitu erantzuna kasu bakoitzean. Okerrak direnean, izendatu eta formulatu erreakzioaren emaitza zuzena.

- Propenoari HCl-a eranstean, 1-kloropropanoa sortzen da.
- Etanola potasio permanganatoarekin bortizki oxidatzen denean, azido etanoikoa sortzen da.
- 2-propanola azido sulfurikoarekin deshidratatzen denean, propinoa sortzen da.
- Azido etanoikoa eta 1-propanola kondentsatzen direnean, etil propanoatoa sortzen da.

11.- Izendatu eta marraztu konposatu hauen formula erdi garatuak:

- $\text{C}_3\text{H}_6\text{O}_2$ formula molekularraren hiru isomero.
- $\text{C}_4\text{H}_{10}\text{O}$ formula molekularraren lau alkohol.